

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5565

AGINDUA, 2020ko abenduaren 2koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan izango dituen ordezkari titularrak eta ordezekoak izendatzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 9. artikulua, azaroaren 7ko 16/1997 Legearen arabera, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluaren osaera ezartzen du. Hain zuzen ere, 1.b paragrafoan eta 2. paragrafoan, funtzio publikoaren ardura duen sailburuari ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bost ordezkariak izendatzeko eskumena. Bost ordezkari horiek hautatu behar dira langile-kopururik handiena eta organo horretako idazkaria atxikita daukaten sailetako langile-kudeaketaz arduratzen diren goi-kargudunen artean.

Bestalde, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluaren Antolaketa eta Jarduera Araudia argitaratzen duen Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2000ko azaroaren 13ko Aginduak, 8. artikulua azken tartekian, berariaz aurreikusten du ordezekoak izendatzea.

XII. Legegintzaldiaren hasieraren ondorioz, kargugabetzeak eta izendapen berriak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko zuzendaritzetako goi-kargudunen artean. Beraz, agindu bakar batean izendatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan izango dituen ordezkari titularrak eta ordezekoak.

Azaldutako guztiagatik, izendatu zaizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari hauek izendatzea Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan, orain arte egon direnen ordeze:

– Jose María Armentia Macazaga jauna, Funtzio Publikoko sailburuordea, lehendakariorde gisa jardungo duena.

– Jone Berriozabal Bóveda andrea, Erakunde Harremanetarako sailburuordea, ordezeko gisa jardungo duena.

– Juan María Barasorda Goicoechea jauna, Funtzio Publikoko zuzendaria, idazkari gisa jardungo duena.

– Jon Karlos Aguirre Huerga jauna, Lan Harremanen zuzendaria, ordezeko gisa jardungo duena.

– Teresa Iruretagoyena Iburguren andrea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria.

– Jon Arturo Uriarte Unzalu jauna, Justizia Administrazioaren zuzendaria, ordezeko gisa jardungo duena.

– Ibon Etxeberría Olañeta jauna, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria.

– María Pilar Uriarte Brizuela andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria, ordezko gisa jardungo duena.

– Patxi Xabier Aizpurua Tellería jauna, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea.

– Blanca María Guerrero Ocejo andrea, Langileak Kudeatzeko zuzendaria, ordezko gisa jardungo duena.

AZKEN XEDAPENA.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, herritar guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 2a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.